

# Alderaketa adierazkorrak. *Bezain-en erabilera euskaraz*

PEIO KAMINO KAMINONDO\*  
PATXI SALABERRI ZARATIEGI\*\*

Gaztelaniaz mintzatzen ohiturik gaudenok badakigu hizkuntza horretan alderaketa adierazkorrak arrunt normalak direla, txitean-pitean ibiltzen direla, orain bai eta gero ere bai. Ohikoak dira honelakoak: *es más agarrado que un chotis, es más tonto que abundio, está más contento que unas pascuas, es más pobre que las ratas, tiene más dinero que un torero, está más jodido que el arroz, es más antiguo que la pana, come menos que un pajarico, sabe más que el mal aceite, es más listo que el aire, es más soso que la calabaza, tiene menos cerebro que un mosquito...* Iparraldean orobatsu gertatzen da frantsesarekin; hizkuntza honetan *être beau comme un dieu, être gai comme un pinson, être haut comme trois pommes, être maigre comme un clou, être malade comme un chien, être myope comme une taupe, être riche comme Crésus* eta beste usaiakoak dira. Egun hain modan eta boladan dagoen ingelesa ikastea ere *to be as blind as a bat, to be as happy as a lark, to be as mad as a hatter, to be as mad as a March hare, to be as pale as a death, to be as cross as two sticks, to be as dead as a doormail* eta antzeko beste batzuk ere ikusten ziren eskoletan, denboraz behintzat.

Bistan da aipatu ditugun hizkuntza horiek gizartean duten presentzia izugarria dela, eta gaztelaniaz edo frantsesez mintzatzen garenean ohartu ga-be ateratzen zaizkigula, hain gaude usatuak nonahi eta noiznahi aditzera, hain ditugu barnean sartuak. Euskaraz, berriz, kontrako arrazoiarengatik, hots, gizartean duen leku txikiagatik, lanak izaten ditugu buruak eskatzen dizkigun aitzineko paragrafoko horien modukoak aurkitzen, solasean ari ga-relarik. Alabaina, euskaraz ere horietarik bada saila. Guk Nafarroan ondoko hauek bildu genituen (Salaberri & Zubiri, 2007: 18-20):

- *Aizkoraren ahoa baino aurpegi zorrotzagokoa izan.*
- *Belarriko zolda baino eskasagoa izan.*

\* Luzaideko euskaltzalea.

\*\* Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

- *Deabrua baino gaiztoagoa izan.*
- *Harialbainua baino meheagoa izan.*
- *Kedarra baino lehorragoa izan.*
- *Lipua ('armiarma') baino zarragoa izan.*
- *Mando zaharra baino okerragoa izan.*
- *Oiloa baino putagoa izan.*
- *Ontzaputza baino harroago izan.*
- *Sugea baino beroago izan.*
- *Udako bareak baino motelago izan.*
- *Urdaia baino zuriagoa izan.*
- *Zartana baino eroago egon.*
- *Zorria baino lotsagabeagoa izan...*

Bistan da askoz ere gehiago badirela, ikerketak aurrera egin ahala beste alderaketa batzuk azaleratuko direla, ondoko hauek susmarazten dituguten bezala:

- *Aingeru batek hainbat kulpa ez izan.* (Azpirotz, 1997: 24; ikusi beherago)
- *Altzairua baino gogorragoko bihotza ukan.* (Salaberria, 1994: 71; ikusi beherago)
- *Deabruaren azala baino gaiztoagoa izan.* (Doneztebe, belarriz jaso)
- *Hedea baino zailagoa izan.* (Goizueta, belarriz jaso<sup>1</sup>)
- *Hipopotamoa baino ere itsusiagoa izan.* (Zendoia, 1998: 27)
- *Lohia baino alferragoa izan.* (Zubieta, belarriz jaso)
- *Lohia baino faltsuagoa izan.* (Belarriz jaso)
- *Txoria baino pozikago geratu.* (Perurena, 1994: 219)
- *Ilargia gau beltzean baino bakarrago egon.* (Ibid., 231)
- *Ogi puska baino onagoko mutila (izan).* (Ibid., 273)
- *Amerikanorik aberatsena baino ere kontentuago jarri.* (Salaberria, 1997: 14)
- *Loteria tokatu balitzaio baino ere poz handiagoa banatu bihotzean.* (Ibid., 145)
- *Sotoko gorotz pila baino gehiago ez mugitu.* (Perurena, 2001: 301)
- *Zata ('abarka') zaharra baino gogorragoa izan.* (Etxaleku, belarriz jaso<sup>2</sup>), e.a.

Ez da pentsatu behar, halarik ere, hizkuntza batean dauden alderaketa guztiak bestean ere aurkituko ditugula ezinbestean; hori bai, gehienetan ideia bera era batera edo bestera aditzera emateko bidea izanen da. Konparazione, gaztelaniaz *ser más viejo que Matusalén* alderaketaren bidez erraten dena *zahar okitua izan* da Iparraldeko euskaran.

Notatzekoa da gure hizkuntzan, komunzki, artikulua ezartzen zaiola lehen osagaiari, ez gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez agitzen den moduan *un(a, os, as), un* edo *a: azeria bezain abila izan, gorotza bezain alferra izan, eguzkia bezain argi ageri izan...* vs. *tener más dinero que un torero, être maigre comme un clou, to be as mad as a hatter...*, nahiz salbuespenak badiren, jakina: *aingeru bat bezain prestua, apostolu bat bezain zintzo, bildots batzuk bezain ezti, erregina maite bat bezain eder, ihi bat bezain zuta, haur batzuk bezain jostagose, haurtxo bat bezain umila, zakur gazte bat bezain jarraikia,*

<sup>1</sup> Juan Jose Zubiri lankideari zor dizkiogu Goizuetako datuak.

<sup>2</sup> Sagrario Aleman euskaltzainak eman dizkigu Etxalekuko datuak.

e.a. Honen oinarrian, jakina, gure artikularen eta beste hiru hizkuntza horien artikuluen izaera desberdina (ez hiruretan bera, bistan da) dago (euskararenaren inguruan ikus Osa, 1990: 145-150).

Nolanahi ere, irudi luke Iparraldean joera handiagoa dagoela, holako alderaketetan, *bezain* erabiltzeko Hegoaldean baino, hemen gehienetan *baino ...-ago* kausitzen baitugu Nafarroan jasoetakoetan: *oilarrak baino harroago jarri, sagarmina baino gaiztoagoa izan*, e.a. Ez dakigu alderdi bakoitzeko hizkuntza ofizialak eragina izan duen gai honetan; honek ezbairik gabe azterketa sakona behar luke. Guztiaz ere, Nafarroan bildu erkaketetan *bezain* biziki ardurakoa ez bada ere, *adina*-ren bidezkoek multxo osatzen dute: *gatzpottoa adinakoa izan, oiloak adina indar ez ukan, putreak adinako sudurra ukan, txepetxak adinako bururik ez ukan, txitak adina fundamentu ez ukan, txitak adina ez jan, txoriak adina ez jan* (Salaberri & Zubiri, 2007: 19-20).

Hegoaldeko literaturan ere ugariak aurkitzen ditugu holakoak:

- «*Bazekinat mendia hainako gezurrak esaten ari naizela usteko dunala*». (Perurena, 1994: 78)
- «*Hark botatzen zizkinan botaboloak, hark! Paretak botatzeko ainakoak bai, hark*». (Ibid., 81)
- «*Ikusiko bahuna ze elur zapladak ari dituen! Urki hostoak ainakoak bai, batere esajeratu gabe!*». (Ibid., 151)
- «*Zer esango dinat? Gaur egunean edozein abertzale txepelek edo euskaltzale ikasik, hizketan goroldioa aina ez diren horietako edozeinek alegia [...]*». (Ibid., 294)
- «*Autoak abioiak hainako orrua ateratzen du*». (Irazusta, 1994: 188)
- «*Gipuzkoarra Azkoitiko Mendizabal izan zan, mutil jator askoa, zezenak hainbat indar zuana*». (Salaberria, 1994: 122)
- «*Jainkoak daki zenbat biraje egin zituzten aita- seme gizarajo haiek, etxe bat hainako tabloi pila hura paraje hartatik Zizurkilko plazara jexten*». (Mujika, 1996: 63)
- «*Arrazoi txar bat hainakoa izango zan eskupeko hori*». (Salaberria, 1997: 170)

Iparraldeko testuetan ere badira holakoak; cf. Dirassarren ondoko hau (1995: 68-69): «*Urtats ondoko lehen ortzeguna berantesten ginuen, orduan apezak sakristian aldatu eta, eskurat emaiten baitzaikun urteko soldata, 50 liberako diru paperño bat! Munduko urre guziak bezenbat estimatzen ginuen paperñoa...!*».

Hemen aipatzen ditugun batzuk (aldamenean erreferentziarik ez dutenak) belarriz jasoak dira, eta beste batzuk, gehienxkoenak, liburuetatik bildu ditugu, azken hauetako anitz, hain segur, herri hizkeran oinarriturik badaude ere, adibidez Larzabalek antzerki lan batean darabilen *otsoa bezain azkarra izan* Duhauk Beskoitzen belarriz jasotzeak adierazten duen bezala. Beste batzuk, ez dago zalantzarik, idazleek berek asmatuak dira, baina ez menturaz aitzinetik pentsa daitekeen bezainbeste: forma bat idazle baten baino gehiagoren izkribuetan azaltzeak (adibidez *txoria bezain alegera, txoriak bezain kontentu*), bata besteari kopiatu ez badio (eta hau ere daitekeena da), forma hori herrikoia dela ematen digu aditzera. Inoizka, idazleak berak aitari aditua diola aitortzen du; honela egiten du Larrek *sosa bezain zelai edo ordoki* ibiltzean, «gure aitak zion bezala» gehitzen baitu.

Arlo honetan lantegi zabala dago oraindik eta guk hemen argitaratzen dugun artikulua honetan horren hasi-masiak besterik ez ditugu ematen. Segurrenik ere gure literatura hobeki eta sakonkiago arakaturik aise etsenplu eta lekuko gehiago agertuko dira. Gero geroko gisa.

Ondoko hauek dira guk kausitu ditugunak:

## 1. Abila

### Azeria bezain abila

– *Apez zahar bat duk, azeria bezain abila. Gorde leku batetik bertzerat, orai artio eskapatu zaikuk... Bainan, eroriko duk noizbait ihizia gure zeporat.* (Larzabal, 1992b: 298)

– *Judua da Blum azazkal punttetaraino, eta beraz azeria bezen abila; iduritzen zaio beste guziak edo burutik mainku direla, edo bederen hura baino biziki tontoago.* (Lafitte, 2002: 189)

Hau gaztelaniazko *ser más listo que el aire*-ren kidea da.

## 2. Agudo

Ikus azkar, fite, zalu.

### Tximista bezain agudo

Hau gaztelaniazko *como un rayo*-ren parekoa da.

– *Jose kiskaldu zan. Lipar baten, tximista bezin agudo, Martiñi lepotik heldu, simaur lindinga jo erazi, ta bere gañean luze, zintzurretik estutzen zuala, zapladaka ezin aseaz, buru, musu ta okotzean ukabilka, txautu ta zukutu zuan etsai likitsa, artzanorak mendean daukan otsoa zukutzen duan bezela.* (Tx. Agirre, 1966: 230)

## 3. Aldakor

### Hego haizea bezain aldakorra

– *Hemengo neskatxa guziak direlakotz ahuntzak bezain basak, hego haizea bezain aldakorrak, ijitoak bezain bihurriak.* (Larzabal, 1992b: 252)

## 4. Alegera

### Txoria bezain alegera

Erdarazko *estar más contento que unas pascuas*-en baliokidetako eman dai-teke. Ikus, orobat, *txoriak bezain kontentu* forma, *kontent*, *kontentu* sarreran.

– *Lehenbiziko soldata kobratu zuelarik txoria bezain alegera jin zen Peio etxerat.*

– *Omia-Sainduri lau egun lehenago, Piarres, Joanes eta Jérôme, heien lagunetarik bat, xoria bezen alegera, Fismetik airatu ziren azkenean, lau egun labur eta luzeendako!...* (Barbier, 1996: 93-94)

– *Jar hadi, Piarres. Hire itzulia elizan eginik eta, dudarik gabe, hil-herrietan ere hala-hala, xoria bezen alegera heldu hintzen... Zertako ilhundu haiz hola, Marieri behatu ta? / Xoria bezen alegera heldu nintzela? Ez dut ukatu-*

ren. *Marieri behaturik, ilhundu zaizkitala begiak? Hori ere hola da. Itsusi bat, nereko bat baizik ez nintzen eta!* (Barbier, 1996: 193)

– *Lehen, xoria bezain alegera baitzen, zerk bada kanbiatua dauku Pattin gure mutiko gehiena? Beti ixil ixila, mokor mokorra, begi airea ilun... ez da hau ene semea! Betidanitik bizia, bainan bihotz ona, zoin minbera bilakatua dugun!* (Narbaitz, 1999: 51)

## 5. Alfer

### a) Bidea luze bezain alferra

Hau gaztelaniazko *más vago que la chaqueta de un guardia*-ren kidetsua da.

– *Nik ez dut hori biziki ezagutu. Arreba bat bazuen, izena zuena Mayia. Neskato bat zen izigarri perestua. Artzain batekila ezkondu zen, **bidea luze bezain alferra** zena. Nik aski nuen hau ikustea irriz hasteko.* (Etxebarne, 1989: 63-64)

### b) Gorotza bezain alferra

Aurrekoaren baliokidea da; ikus Salaberri & Zubiri (2007: 19, 125).

– *Gorotza bezain alferra da mutiko hori!*

### c) Kantoniera ('bidegilea') bezain alferra

– *Hau ofizio dorpea!... Gero erranen duzue zuek "kantoniera bezain alferra!"...* (Larzabal, 1991: 111)

### d) Lurra bezain alferra

– *Lurra bezain alferra baita [lurra-ezin aferra-ita].* (Duhau, 2003: 188)

## 6. Apaindu

### Saltsa bezain apaindua

Erdaraz *ir muy peripuesto, ir más peripuesta que peripuesta* erraten da.

– *Itzaina aitzina joan zen bere bideari, eta Jauregibehere gaizoa, **saltsa bezain apaindua**, larre hoitan ibili zen, bati galda, bertzeari galda...; eta azkeanean borda txar batean aurkitu zuen delako sorgintsa: emazte handi, sekail, pe-trail bat, bekatu mortala bezain itsusia, zaia gorrasta bat soinean, buru-has eta urtutsik.* (Lafitte, 1982: 74)

## 7. Apal

### a) Katua bezain apal

– *«Zer gertatzen zaik?» Nik: «Gertatzen... Barka jauna, lokartu naizela!» Dena kondatu bainion, **gatua bezain apal** nindagola, irri goxo batean erran zautan aita on harek [...].* (Larre, 2001: 170)

### b) Zakur joa bezain apal eta ezti

– *Horiek hola, Frantziak bakea eta ixiltasuna sinatua, arrazoin guziak baginituen guk denek, **zakur-joa bezain apal eta ezti** ibiltzeko bazterrez bazter eta xokoz xoko.* (Larre, 2001: 136)

## 8. Argi

Ikus **garbi** eta **klar** sarrerak.

## a) (Eguerdiko) eguzkia bezain argi, eguzkia eguerdi betean bezain argi

Gaztelaniazko *más claro que el agua*-ren tankerakoa da, hots, zerbait hagitx argi dagoela adierazi nahi dugunean erabiltzen dugu. Cf. Agirre Astesukoaren pasarteño hau (1978 [1850]: 506): «*Hañ argi ta ederra geratuko da dohatsuaren gorputza non eguzkiaren eran argi egingo eta distiatuko duan*».

– *Baita ordean hor bertze zimardikarik? Eta batera begirik duenak ikusten baitu haatik, **iguzkia bezain argi**, zeren ondotik dabilan gobernamentua!* (J. Etxepare medikua, 1988: 389-390)

– *Bainan ez eni erran: ez dela hor egia bat, burua bi beharrien artean xuxen (zuk herenegun ez bezala) duenarentzat **eguerdiko iguzkia bezain argi**: munduko sos berri ala zahar guziak bezain pizu: egia bat, urrik hemen emaiten dautzuetana, lehenik zuri, zato, gaixoa; eta gero orrori: zilar eta urre.* (HUA, 2004: 291)

– *Orok dakiguna da, egun hautako **iguzkia eguerdi betean bezain argi** ageri dena: gaixakeriaz emana dela, katiximaren haurrei eskuaraz egiteko debekua.* (HUA, 2004: 357)

– *Kapitainaren ahotik jakin zuenean Don Marianok zer gertatu zen kuartel-etxean hiru bilogorriekin, deitu zituen alkatea eta erretora. Orain **iguzkia bezain argi** ziren gauzak; laminek zuten egin zubia, silogismo honen arabera [...].* (Etxarren-Lohigorri, 1993: 148-149)

## b) Sos berria bezain argi eta eder

– *Eta, heien ordain, harat hupatu ziren anglesak, gizon batzu ederrak, **sos berria bezain argi eta eder** baitziren. Toki onerat zoazin laster erdoiltzeko!* (Barbier, 1996: 137)

## 9. Arin

Erdarazko *más ligero que el aire*-ren modukoa dugu lehenbizikoa:

## a) Argi-hasteko lehen ufa bezain arina

– *Zazpi landare berri, graziaz beteak, bakotzak zazpi xilintxa ttipi ekartzen zituela. Zazpi xilintxa primaderako haize ez-tian dantzaz zabiltzanak, hedatzen zutela parabisuko baratzetik bakarrik heda ditaike usain ona. Balusa bezain ez-tiak. **Argi-hasteko lehen ufa bezain arinak**, mendietan dirdiratzen duen elurra bezain xuriak, zazpi ezkilak bezain pollitak, zazpi serorak bezain garbiak, lehen ezkongai-loreak lurretik ziren sortuak.* (Minaberri, 1998: 155)

## b) Txoria bezain arin

– *Beribil hoik haizea bezala non-nahi dabilzanetarik hunat [...]. Eta orain, hegal-daka, airez aire abiatu direlakotz, loriatzen, gizon dirudun, aizinadun batzu... iduri zaiku berehala oro **xoriak bezain arin** ibil ahalko girela!* (HUA, 2004: 294)

– *Agur goxo batzu igortzen diozka eskuz eta esku musuz... Gero, **xoria bezain arin**, euskal dizka bat itzultzen du, haren kantua berak kantatuz.* (Larzábal, 1992b: 202)

Ikusten den bezala, *haizea bezala ibili* ere erran daiteke gauza beraren adierazteko. Bestela *hostaila idor batzuk baino arinago* ere aurkitzen dugu geure literaturan:

– *Erraiten dautzuet harrigarri dela oraiko gazteen ikustea: neskatokoak os-toila idor batzu baino arinago, pinpirina iduri, ortzi adarraren zazpi kolore-ak soinean, jauzika, itzulika, xirimolaka, haize hegoak errautsa nola derabila? Bardin-bardina. Mutiko zozo batzu heieri so, begiak eta ahoa zabalduz; gaizo mutikoak!* (HUA, 2004: 269)

## 10. Azkar

### 10.1. Azkar ‘indartsua’

Frantsesez *fort comme un lion* erraten da eta gaztelaniaz *más fuerte que un toro*.

#### a) Lehoia bezain azkarra

– *Gaitzeko mutikoa, lehoia bezain azkarra.* (Arbelbide, 2003: 90)

#### b) Otsoa bezain azkarra

– *Ene aitaxi zen gizon bat izila, osoa eta otsoa bezain azkarra...* (Larzal, 1996: 92)

– *Otsoa bezain azkarra [otsua-ezin azkarra].* (Duhau, 2003: 353)

### 10.2. Azkar ‘gogorra’

#### a) Altzairua bezain azkar

– *Handik oren-laurden bat gabe gero, oro bildurik zauden Beholako gainean, Frantxixkoren beha. Gehienak izerdituak ziren, bainan altzeirua bezen hazkar bethi. Ahamen bat ithoka jan zuteneko, xahakoak eskuratu orduko, han zuten Frantxixko [...].* (Barbier, 1926: 21)

#### b) Arroka bezain azkarra

Cf. *arroka bezain gogorra, gogor sarreran.*

– *Jainko onak ematen baitu geriza / Biziko egun latzetan. / Emaiten baitu ihes lekua, / Harroka bezain azkarra.* (Larzal, 1992: 271)

#### c) Mendi pareta bat bezain azkarra

– *Nehork sekulan, ostatuan edo merkatuan, solas lodi eta gizen zerbeit arthik zezala haren aintzinean..., bertze asko muthiko zozok bezala, mando-aho alimale bat hirriz kirrikan idekitzeko orde, Piarres jazartzen zitzaion berehala; ez oilar-xalaparta bat bezala, bainan mendi-pareta bat bezen hazkarreko hartza bezala.* (Barbier, 1926: 169)

### 10.3. Azkar ‘laster, fite, agudo’

Ikus *agudo, fite* eta *zalu*.

#### Haizea bezain azkar

– *Banua ni –azaldu zuan– ta iñoren esanik adi nahi ezta, aidien zai egote-ko astirik gabe, azkar, haizea bezin azkar, Bergarako bideari ekin zion.* (Tx. Agirre, 1966: 286)

## 11. Bakan

## Haritza bezain bakan

– *Haitza bezain bakan* [*haitza bezin bakhan*] (Expression bien connue.)  
Rare / épars comme les pieds de chêne (alors qu'il s'agit de maïs ou de blé).  
(Duhau, 2003: 355)

## 12. Basa

## Ahuntzak bezain basak

– *Hemengo neskatxa guziak direlakotz ahuntzak bezain basak, hego haizea bezain aldakorrak, ijitoak bezain bihurriak.* (Larzabal, 1992b: 252)

## 13. Beltz

## a) Tximiniako kedarra bezain beltza

Cf. Goizuetako *kedarra baino lehorragoa izan.*

– *Zeren-eta, horren azala zuria balinbada, horren barnea, ximineko kedarra bezain beltza baita.* (Larzabal, 1992: 66)

## b) Laratza bezain beltza

– *Motxoko gasna legun batetarik zerra bat hartu zuteneko, eta zangoez tro-nadurari batere zanpaka arizan gabe, han zuten orai, aintzinean, kafe bat hauta, laatza bezen beltza eta ifernuko sua bezen beroa.* (Barbier, 1926: 40)

– *Eta, salbu zuek eta, Piarreñi heldu zitzaieten bere galtza bat belhaunetik xilo; eta belhaun-xilo hartarik, leiho batetarik bezala, belhaun-kosko bat ageri zen laatza bezen beltz.* (Barbier, 1926: 105)

– *Laratza bezain beltza* [*lahatza bezin beltza*]. (Duhau, 2003: 352)

Gaztelaniaz *más negro que el carbón* erraten da.

## 14. Bero

## (Infernuko) sua bezain bero

– *Egin bedi elhurra bezain hotz debozinoan eta sua bezain bero malizian: eta hotztasun hartarik, negutik udara bezala iragan bedi ifernuko berotasunera, eta ezta harenaiño, han hel arteiño baratuko.* (Axular, 659)

– *Motxoko gasna legun batetarik zerra bat hartu zuteneko, eta zangoez tro-nadurari batere zanpaka arizan gabe, han zuten orai, aintzinean, kafe bat hauta, laatza bezen beltza eta ifernuko sua bezen beroa.* (Barbier, 1926: 40)

## 15. Bihurri

## Ijitoak bezain bihurriak

– *Hemengo neskatxa guziak direlakotz ahuntzak bezain basak, hego haizea bezain aldakorrak, ijitoak bezain bihurriak.* (Larzabal, 1992b: 252)

## 16. Bipil 'ernea, abila, langilea'

## Inurria bezain langin eta bipil

– *Duela lau urte zitzauzkigun abiatu, oroit zirezte, bankier andana bat etxez etxe, xinaurria bezain lankin eta bipil, gebienak arrotzak, batzu haatik euskaldun mutil batzuez lagunduak.* (J. Etxepare medikua, 1988: 216)



## 17. Bizia

### Bolbora bezain bizia

– *Irigoyen, Donibaneko apeznausia zen ene kofesorra: bolbora bezain bizia zen eta izpiritu zorrotzekoa.* (Larzabal, 1998: 118)

– *Izpiritu ernea zuen, Erroman teologia ikasia. Haren mailako ikasle batzu jada apezpiku ziren. Bolbora bezain bizia baitzen, berdin muturreko bat nor-nahiri emateko prest zen, hasarretzen zelarik eta sakreka hasten.* (Larzabal, 1998: 144)

## 18. Distirant, distiratsu

### a) Goizargia bezain distiratsua

– *Zoragarria: goizargia bezain distiratsua, gaztea eta gozoa, gozoetan gozoena. Hots: izaiten ahal den emazte gutiziagarriena.* (Herria, 2007-07-5, 6)

### b) Su pindarra bezain gorria eta distiranta

– *Egun batez, oilar bat bazabilan pasean, baserri batean. Bat batean, zer ikusten du? Bide bazterrean, landare xume bat, ez nehon ez dena bainan bazuen lore bat! Lore bat, ba, xoragarria: su pindarra bezain gorria eta dirdiranta.* (Minaberri, 1998: 39)

Gaztelaniaz *brillar como el oro* erraten da zenbait testuingurutan.

## 19. Eder

### a) Erregina maite bat bezain eder

– *Eta, ezkila handia, gerlako ezkila, musikan ezti-eztia Piarres xaharraren eskuek zerabilkatela, elizatik athera ziren ezteiak. Piarresen besotik heldu zen orai Goaña, eta beso haren gainean ongi finkatua, loria bat begietan bazoan, erregina maite bat bezen eder.* (Barbier, 1996: 207)

### b) Sos berria bezain argi eta eder

– *Eta, heien ordain, harat hupatu ziren anglesak, gizon batzu ederrak, sos berria bezen argi eta eder baitziren. Toki onerat zoazin laster erdoiltzeko!* (Barbier, 1996: 137)

## 20. Ergel

### Pika bezain ergela

– *Pika bezain ergela da neska hori, ez du gauza onik egiten sekula!* (Kamino & Salaberri, 2007: 156)

## 21. Erlats

### Laratz bezain erlats

– *Eztulak xahutua dago gero; sorgin begi, eta mintzoa laratza bezen erkats. Eta halere jende xeheaz irri egin behar!* (HUA, 2004: 288)

## 22. Ezti

## a) Belusa ('pana') bezain ezti

– Zazpi landare berri, graziaz beteak, bakotxak zazpi xilintxa ttipi ekartzen zituela. Zazpi xilintxa primaderako haize eztian dantzan zabiltzanak, hedatzen zutela parabisuko baratzetik bakarrik heda ditaiken usain ona. **Balusa bezain eztiak**. Argi-hasteko lehen ufa bezain arinak, mendietan dirdirutzen duen elurra bezain xuriak, zazpi ezkilak bezain pollitak, zazpi serorak bezain garbiak, lehen ezkongai-loreak lurretik ziren sortuak. (Minaberri, 1998: 155)

## b) Bildots batzuk bezain ezti, bildotsa bezain ezti

– Bozetako egunak hurbiltzearekin, azeriak bezen zail eta zalu, bainan **bildots batzu bezen ezti** dabiltzala ikusiko ditutzue. Egundainokoa dute. (HUA, 2004: 162)

– Zer uste dute, ala Jinkoaren beldurra gal eta ezazol bilakatu ondoan, **bildotsa bezen ezti** egonen zeiera menditarra, hiritar etendu, xutik doi-doia dagozin batzu bezen geldi eta maltso? (HUA, 2004: 272)

## c) Zakur joa bezain apal eta ezti

– Horiek hola, Frantziak bakea eta ixiltasuna sinatua, arrazoin guziak baginituen guk denek, **zakur-joa bezain apal eta ezti** ibiltzeko bazterrez bazter eta xokoz xoko. (Larre, 2001: 136)

## 23. Faltsu

## Urdea bezain faltsua

– **Urdea bezain faltsuak** dituk, ez haiz haietaz fidatzen ahal! (Kamino & Salaberri, 2007: 70)

## 24. Fite

Ikus agudo, azkar eta zalu.

## Tiroa bezain fite

– Jaun dotorra **tiroa bezain fite** heldu da etxerat. (Lafitte, 1982: 91)  
Gaztelaniaz honen tankerakoa den *venir desapareado* ibiltzen da.

## 25. Garbi

## a) Elurra bezain zuri eta garbi

– Bainan errana da ogi bihi gaineke xoria enoatzen dela. Krulik ere enoatu zen. Sobera arrain, sobera ulitxa, sobera... sobera... **Elurra bezain xuri eta garbi** igebelarra beti han zagon ur gainean. Ez ote zitzaion Kruliki keinuka ari? Haugi, hauji ziola haren bihotzak? (Minaberri, 1988: 133)

## b) Iturriko ura bezain garbi

Hau erdarazko *más claro que el agua*-ren iruditsua da.

– Herriak nahi luke bere hizkuntzari bizirik eustea, itxurak diranez. Hori **iturriko ura bezin garbi** ikusi lezake begiak zabalik dauzkanak. (Lasarte, 1997: 34)

c) **Kristala bezain garbi**

– *Oihanez-oihan, Ihizgorriri behera, ur erreka mehe bat jausten zen, arroketan ohatua, nihun ere lohi putzu bat gabe. Ura kriztaila bezain garbi, jauzi-jauzi heldu zen gain behera.* (J. Etxepare Landerretxe, 1991: 139)

d) **Lilia bezain garbi**

– *Etxe hau berritu nuenean, urriki dut ez eginik nunbait, datxikola edo bazter, barroki ttipi bat, abere buru bakarraren edo bien doian, lilia bezain garbi idukiko nuena, han ezarriko bainintuen eri hauteman nintuzken kabalak.* (J. Etxepare medikua, 1988: 360)

e) **Sosa bezain garbi**

– *Alta etxeko amatxi ere ez dut ahanzten bainan egiten zuena harek pausarik batere? Baxerak lehenik, eta jatsarekin sukalde-ezkaratzak sosa bezain garbi atxik, hek zirela bai langile merkeak etxean!* (Larre, 2001: 70)

f) **Zilarra bezain garbiak**

– *Zer dira nexka horiek errealki? Horien jestuak ez zaizkit biziki laket! Beti harat eta hunat karrikan gaindi mutiko bederarekin... Zuk zer diozu, Juanes? / –Barrandatuak ditut! Ez dute, ez, deus gaizkirik egiten... Zilarra bezain garbiak dira kanpoz ala barnez... Bertzek ere hala diote.* (Etxarren-Lohigorri, 1993: 66)

26. **Geldi**a) **Elizako murrak bezain geldi**

– *Sisti-sasta baionetak han zerabiltzaten, zango-besoan artetik, lepoen ondolik, ustez eta gizonak izi. Gizonak beti han, elizako murrak bezain geldi.* (HUA, 2004: 445)

b) **Elizan bezain geldi eta isilik**

– *Une larria! Ergai estua! Apostularien deadarrak eta billera gizatsuko durundi zurrumurroak berehalako baten bukatu zitzaizkigun, bihotzak taupadaka geunzkan, hainbeste milla gizon eleizan bezain geldita ixillik geunden.* (Tx. Agirre, 1966: 98)

c) **Hila bezain geldi**

– *Anartean, han nindagokan ixpila hesiari josia, hila bezain geldita.* (Larza-bal, 1996: 60)

27. **Gizen**a) **Harra bezain gizona**

– *Gizon bat, harra bezain gizona! [gizon harra bezain gizona].* (Duhau, 2003: 129)

b) **Urina bezain gizona**

– *Ditazken herririk pollitenak bizkitartean: [lurrak] oro zelai, urina bezain gizenak, udare mota guzieren jabe, mekanikaz ezin gehiago erabil errexak.* (J. Etxepare medikua, 1988: 396)

## 28. Gogor

## a) Arroka bezain gogorra

Ikus *arroka bezain azkarra* forma, *azkar* sarreran.

– *Gizonak han, harroka bezen gogor; bat ez da zehe batez higitzen. Bati aizkora kolpe bat buruan eman dio zanpur batek. Odoletan zen, bainan ez du gerokorik.* (HUA, 2004: 445)

– *Oihanaldek ez duela sekulan gibelera egiten. Oihanalde izitzen? Oihanalderen bihotza mendiko harroka bezain gogorra da. Jakin-zak hori, Errekalde seme!* (Larzabal, 1991: 208)

## b) Harria bezain gogor, harria bezain gogorrak

– *Giten ixil; mintza ditela gauzak. Solasak uka ditezke, gauzak ez. Erakusten diren ordutik, han daude, harria bezen gogor, eta berekin dakarketen irakaspena ere bai.* (HUA, 2004: 219)

– *Zer gertatu da? Mutiko gaztea ordu arte harria bezen gogor egonik, nigarrez hipaka hasi da, burua apaldurik eta begitarte bi eskuz daukalarik, bere amaren izena entzun duenean.* (HUA, 2004: 399)

– *Gogorrak? -harria bezain.* Ez baitzuten *seurki hartze* ona gaizo Apostoluek. (HUD, 1992: 391)

– *Espartin-egileen gainera, edo espartin-egiteko estakuruan, ez dakit xuxen, bazen Mauleko karrika nausian pilota egilea. Hala da, zinez, harria bezain gogorrak zituela hunek bere eskuzko pilotak hastean segurik bainan ez ginuen hautarik.* (Larre, 2001: 144)

## c) Hesola bezain gogor

– *Bainan, eginen daut norbeitek, oixtian zuhaurek zinioen bezala jendea egoiten bada hesola bezain gogor? Sos bakar batzuen beiratzeko, behar dituen pusken karreon nahiago badu arizan bizkarraren gostuz?* (J. Etxepare medikua, 1988: 28)

## d) Hezurra bezain gogorra

– *Ogia, hezurra bezain gogorra [ogia, hezurra bezin goora].* (Duhau, 2003: 131)

Cf. Salaberriaren ondoko hau (1994: 71): «*Nagusi harek ere, beste askoren moduan, altzairua baino gogorragoko bihotza baitzuan*».

## 29. Gora

## a) Mendia bezain gora

– *Handik bi urratsetan, gehientsua oraino xutik dagoena da jokhari plaza bat Kolosea deitzen dena, mendia bezein gorako harrasi batzuez hetsia.* (Adéma, 1877: 45)

## b) Zerua bezain gora

– *Badakit bai, harritzen nindueta eliza harek: hain haundia Urdozokoaren aldean. Eta kaleria hek!, zerua bezain gora ikusten nuen gaineko hirugarren hura eta bere gisan harrigarria.* (Larre, 2001: 81)

## 30. Gormant 'jatuna' 'ahozuria'

**Katu zaharra bezain gormanta**

– *Ez zuen aitortu nahi basurdekia biziki maite zuela, gatu zaharra bezain gormanta baitzen.* (Arbelbide, 2003: 140)

## 31. Gorri

## a) Arrosa bezain gorri

– *Maite-mindurik emaztearen inguruan nabilala, / galdetzen diot maite nauenez otoi segurta nezala; / arrosa bezain gorri eginik, begiak apal-apala; / baietz segurki, ihardesten daut, hogoi urtetan bezala.* (Xalbador, 1976: 303)

## b) Grana bezain gorria

– *Elurra bezala txurituak geldituko dira zuen bekatuak, grana bezeñ gorriak balira ere, esaten digu Isaias Profetak [...].* (Agirre Asteasukoa, 1978 [1850]: 104)

– *Era onetan elurra bezala zurituak geratuko dira zuen bekatuak, grana bezeñ gorriak balira ere.* (Agirre Asteasukoa, 1978 [1850]: 317)

## c) Su pindarra bezain gorria eta distiranta

– *Egun batez, oilar bat bazabilan pasean, baserri batean. Bat batean, zer ikusten du? Bide bazterrean, landare xume bat, ez nehon ez dena bainan bazuen lore bat! Lore bat, ba, xoragarria: su pindarra bezain gorria eta dirdiranta.* (Minaberri, 1998: 39)

## 32. Gozo

## a) Eztia bezain gozo

Gaztelaniaz *más dulce que la miel* erraten da.

– *Esakeran tolesgabea, ibilkeran adjutua, begirunean samurra; esnea bezin zuria, olio bezin leuna, eztia bezin gozoa; garbia, txukuna liraña, burutsua, ona ta ederra beste on ta ederrik inon bazan, aingeru bat zirudian ta aingerutzat zeukaten, etxeokak, ezagunak eta herritarrak.* (Tx. Agirre, 1966: 121)

## b) Ogi fresko muflea ('ongi artzitua') bezain gozo eta mamitsu

– *Orduan dugu beste begiz ikusi, arras bertzelakatua, gure lehengo erakaslea, ala gu ote ginen bertzelakatuena! Hura bederen hunela agertzen zitzaigun ondikotz: atzo harrizko iduri, eta egun ogi fresko muflea bezain gozo eta mamitsu egina, hots, ez ote ginuen hori egiazko Bisquey apezala!* (Larre, 2001: 132)

## 33. Handi

**Jarako mendia bezain handi**

– *Bere alaba besarkatzen du, eta badoa Jarako mendia bezain handi.* (Barbier, 1987: 64)

## 34. Hits

**Gau bezain hits eta ilun**

– *Garbiki, jende batzu hain dire beren hartan kokatuak, hura baizik ez dutela onik nehon ikusten; non bertze guziak oro gau[a] bezen hits eta ilun baitzazkote.* (HUA, 2004: 345)

## 35. Hotz

**Elurra bezain hotz**

– *Egin bedi elhurra bezain hotz debozinoan eta sua bezain bero malizian: eta hotztasun hartarik, negutik udara bezala iragan bedi ifernuko berotasunera, eta ezta harearaino, han hel arteiño baratuko.* (Axular, 659)

## 36. Idor

Cf. Goizuetako *kedarra baino lehorragoa izan.*

a) **Hezurra bezain idorra**

– *Hezurra bezain idorra duk [hezurra-ezin idorra-uk].* (Duhau, 2003: 352)

b) **Sardina zaharra bezain idor**

– *Ai, ai, ai. Egun hilabeteko hirua! Heldu den hilabeteen izanen nauk xardin zaharra bezain idor.* (Larzabal, 1992b: 30)

## 37. Ilun

a) **Gau bezain hits eta ilun**

– *Garbiki, jende batzu hain dire beren hartan kokatuak, hura baizik ez dutela onik nehon ikusten; non bertze guziak oro gau[a] bezen hits eta ilun baitzazkote.* (HUA, 2004: 345)

b) **Kalbarioko zerua bezain iluna**

– *Dohatsu, bi egunetarik, ebaska bezala, ahamen zerbeit emaiten zutelarik hortzen artean, edo ur xorta bat, ur zikin bat biltzen zutelarik, dena lohi zen obuza-zilo batean. Zeru bat, Kalbarioko zerua bezen ilhuna! Lohia, basa! Basa bat higuigarria, belhaunetarainokoa, bulharretarainokoa, lagun bat edo bertze frangotan iresten zuen basa higuina!* (Barbier, 1996: 114-115)

## 38. Isil

a) **Paretako santua bezain isil**

– *Hantxetan bai, ezpainak aintzineran murtxatuz, muntto-munttoa jarririk eta paretako saindua bezain ixil, mutiko planttakoak ginela gu epe labur hartan segurik!* (Larre, 2001: 88)

b) **Sagua bezain isil**

– *Han ere erne egin nituen etxeko aldiak: polliki, polliki, ezkaratzeko borta zaharra kraskarazi gabe, ama ganbaren egiten ari zen artean, sukalde xokotik*

*arkatza sakelarat bildu, sagua bezain ixil jokatuz, eta jo berriz lasterrari eskolako bidetik beste alderat laster eta laster.* (Larre, 2001: 23).

### 39. Itsusi

#### Bekatu mortala bezain itsusia

Hau gaztelaniazko *ser más feo que un pecado* formaren baliokidea da, bistan denez.

– *Itzaina aitzina joan zen bere bideari, eta Jauregibehere gaizoa, saltsa bezain apaindua, larre hoitan ibili zen, bati galda, bertzeari galda...; eta azkenean borda txar batean aurkitu zuen delako sorgintsa: emazte handi, sekail, petrail bat, **bekatu mortala bezain itsusia**, zaia gorrasta bat soinean, buru-has eta urtutsik.* (Lafitte, 1982: 74)

Antzekoa da Dirassarrek (1995: 58) darabilen ondoko hau ere:

– *Eta bi begiak han izanki, betiko tokian, guri so bezala...! Badakizue zeren begiak ziren? Apo batenak! **Bekatu mortala baino itsusiagoko** apo zahar batenak...!*

### 40. Jarraiki

#### Xakur gazte bat bezain jarraikia

– *Alta beste alderat hasia zen partida: Ibarrola bidarritarrak tiratu ditu lehen tiroak, eta nolakoak! Xabi Errecart bere gibelego lagunak han zuelarik **xakur gazte bat bezain jarraikia**, horiena izan da partidaren lehen partea: 7-2, 15-6 ren kontrario putikoak ito nahi ukan balituzte bezala.* (Herria, 2005-06-2, 7)

### 41. Jostagose

#### Haur batzuk bezain jostagose

– *Herriko usaia zaharra. Ostatuan zango bat sartzen ez zutenak baziren, kurtsa hoitarat, itsutuki emanak; **haur batzu bezain jostagose**.* (HUA, 2004: 464)

### 42. Kexu

#### Zazpi galtxagorri bezain kexu

– *Oren laurden baten buruko berriz xutik zen. Aratsalde gehiena bere ahate basen ondotik debaldetan ibilirik, iluna goizik jausten baita ba neguan, etxe-ko alderat hartu zuen, **zazpi galtxa-gorri bezain kexu**, ez baita guti!* (Léon, 1993: 136)

### 43. Klar ‘argia, garbia’

Ikus argi eta garbi sarrerak.

#### Ura bezain klar

Hau gaztelaniako *más claro que el agua* bera da; cf. ingeleseko *crystal-clear* eta euskarako bereko *iturriko ura bezain garbi*.

– *Edozoin gisaz, gauza bat bada ura bezain klar dena: Ari gira denak egi-lea nahiz bilatu, gaixtagin bat balitz bezala, zubi bat zapartarazi balu bezala...* (Etxarren-Lohigorri, 1993: 23)

#### 44. Kontent, kontentu ‘pozik’

##### a) Txoriak bezain kontentu

– *Egunsentian txoriak bezin kontentu sentitzen ziran aita eta ama, batez ere gauzez ohetik jeiki beharra gertatzen zitzaioten bakoitzean [...].* (Lasarte, 1994: 120)

Ikus *txoria bezain alegera, alegera* sarreran.

##### b) Mentsa bezain kontent

– «*La! –egin nuen– Uai badiakiat nun hizan, amaso!*». *Eta mentsa bezain kontent nintzan. Berriz biderat aterarik, so nindagon tokiari loriaturik.* (Etxamendi, 1988: 26)

#### 45. Langin ‘langilea’

##### Inurria bezain langin eta bipil

Hau gaztelaniako *trabajar como un negro*-tik hurbil dago.

– *Duela lau urte zitzauzkigun abiatu, oroit zirezte, bankier andana bat etxez etxe, xinaurria bezain lankin eta bipil, gehienak arrotzak, batzu haatik euskaldun mutil batzuek lagunduak.* (J. Etxepare medikua, 1988: 216)

#### 46. Lerdekatu (‘abarrakitua’ ‘leher egina’ edo)

##### Txiroen astoa bezain lerdekatua

– ... *osasun bikaña zatika utziaz, almen zoliak iñoren lurrari emanaz; ospel, asper, beartsu ta elbarri; txi-roen astoa bezin lerdekatua, txakur gosea bezin maiskar ta igar, bizitza estu, latz ta lakarra eramán zuan Pedro Migelek lendabiziko ereti luzean.* (Tx. Agirre, 1966: 216)

#### 47. Lerrakor ‘irristakorra’

##### Aingira erien artean bezain lerrakor

– *Halere ez nuke gure ihiziaz on egin nahi: halakoa baita berenaz: aingira erien artean bezin lerrakor. Izaitekotz ere, lo dagolarik behar litake atzeman lepotik; bainan ezta ordean lokartzen; beti badabila.* (HUA, 2004: 289)

Gaztelaniazko *más escurridizo que una anguila*-ren irudia da.

#### 48. Leun

##### Olioia bezain leuna

– *Esakeran tolesgabea, ibilkeran adjutua, begirunean samurra; esnea bezin zuria, olioia bezin leuna, ez-tia bezin gozoa; garbia, txukuna liraña, burutsua, ona ta ederra beste on ta ederrik iñon bazan, aingeru bat zirudian ta aingerutzat zeukaten, etxeokak, ezagunak eta herritarrak.* (Tx. Agirre, 1966: 121)



## 49. Libre

**Airea bezain libre**

– *Justizia ez da guzientzat berdina, badirelarik airea bezain libre dabilanak miliarrak berdin lapurtu ondoan!* (Herria, 2005-04-8, 2)

## 50. Luze

a) **Bidea bezain luze**

Hau erdarazko *más largo que un día sin pan*-en baliokidea da.

– *Bidea bezen luzeko aitzin-solas batean higatu gabe, irakurtzale ona, zure begiak eta gogoa hemenxe, goazin erraiteko dugunera [...]*. (HUA, 2004: 321)

b) **Haga bezain luze**

– *Ondar ondar kenkan, treina abiatzen ere hasia zelarik jada, Piarresek jauzi egin zuen lurrera, eta garako atheari buruz bazoan orai, haga bezen luze, bere athorra zuri handia haizeak zabaltzen ziola alderdi guzietara.* (Barbier, 1987: 95)

## 51. Makur

**Akerraren adarra(k) bezain makurra**

– *Biba zu ama! Badut uste Jaun Erretorak ere ez duen zuk bezen pulliki xaramelatzen, ez eta ere Luziako Petti orro-handi harek. Uste du ba gaizoak, bainan akerraren adarrak bezain makurreko boza du Kanttarik!* (Barbier, 1987: 160)

– *Akerraren adarra bezain makurra [akherraan aarra bezin makhurra]*. (Duhau, 2003: 350)

## 52. Mamitsu

**Ogi fresko muflea ('ongi artzitua') bezain gozo eta mamitsu**

– *Orduan dugu beste begiz ikusi, arras bertzelakaturia, gure lehengo erakaslea, ala gu ote ginen bertzelakatuena!* Hura bederen hunela agertzen zitzaigun ondikotz: *atzo harrizko iduri, eta egun ogi fresko muflea bezain gozo eta mamitsu egin, hots, ez ote ginuen hori egiazko Bisquey apez!* (Larre, 2001: 132)

## 53. Maskal ('zaharkaildua', 'ahula') eta ihar

**Txakur gosea bezain maskal eta ihar**

– ... *osasan bikaña zatika utziaz, almen zoliak inoren lurrari emanaz; ospel, asper, behartsu ta elbarri; txiroen astoa bezin lerdekatua, txakur gosea bezin maiskar ta igar, bizitza estu, latz ta lakarra eraman zuan Pedro Migelek lendabiziko ereti luzean.* (Tx. Agirre, 1966: 216)

## 54. Mehe

**Pika bezain mehe**

– *Mariain bisita izan xinilaik jakiten ahal duxu untsa penaiakin gelditu nintzala; biziki kontent jin zitxun horgo bisita inik. Fite pasatu zitxun hen egun la-*

*burrak; untsa arribatu zitxun itzuli guziak inik beren lekura. Peio pika bezain mehe, bana berak hala nahixi.* (Luzaideko gutun argitaragabeak)

## 55. Merke

### Ura bezain merke

– *A! Merke horri abalaz oro. Erran nahi baita merke eros, kario sal, ahal baltiz. Dendariek nahi dituzte botina pollitak; begikoak, iraupenekoak, nehon ez bezalakoak, ura bezain merke; atorra, zaia, manipulis eta gaineratikoen jostea ontsa pagaraziz orori eta bereziki beren zapatainari.* (HUA, 2004: 292)

## 56. Min eta gozogabe

### Asentsio-belarra bezain min eta gozogabe

– *Zeren ezta darion beraska bezala dira haren ezpaiñak, eta olio a baiño leunago haren lephoa, ordea ondorea, azken fina, abszintio belharra bezain min eta gozo gabe.* (Axular, 401)

## 57. Nahasi

### Oilo koloka bezain nahasia

– *Oilo koloka bezain nahasia [oilo kooka bezin nahasia].* (Duhau, 2003: 196)

## 58. Ohoin ‘lapurra’

### Pika bezain ohoina

– *Pika bezain ohoina da emazteki zikin hori!* (Luzaide)

– *Pika bezain ohoina [phika bezin ohoina].* (Beskoitze, Duhau, 2003: 348)

## 59. Ozen

### Bi kaskoinen boza bezain ozena

– *Bainan, han ere, hazkarrena eta oihurik handienaren egilea bethi nausi... Eta Joanes hazkarra zen, boz bat bazuen bi kaskoinen boza bezain ozena.* (Barbier, 1996: 59)

## 60. Pedroil ‘ahula’, ‘indargabea’

### Oilo zaharra bezain pedoila

– *Menekoak iduritzen zaizkionetaz ederki baliatzen duk bainan ez badiok amor emaiten, berehala lotsatzen ere duk, arrunt beldurtia baita eta oilo zaharra bezain pedoila.* (Dirassar, 1995: 98)

## 61. Pisu

### a) Harria bezain pisu

– *Berantegi! Gehiagoko gogoetarik egiteko astirik uso gaixoeri eman gabe, Dabitek, xixpa muturra zilo batean doi doia finkaturik, igorria zioten jada bere tiroa: Pan!... Eta hiru uso, hegalak bildurik, hiru harri bezain pisu erori ziren arbola azpira: pun, pun, pun.* (Barbier, 1926: 135)

## b) Munduko sos berri edo zahar guztiak bezain pisu

– *Bainan ez eni erran: ez dela hor egia bat, burua bi beharrien artean xuxen (zuk herenegun ez bezala) duenarentzat eguerdiko iguzkia bezen argi: munduko sos berri ala zahar guztiak bezen pizu: egia bat, urririk hemen emaiten dautzuetana, lehenik zuri, zato, gaixoa; eta gero orori: zilar eta urre.* (HUA, 2004: 291)

## 62. Plaxent ‘atsegina’

## Izarrak bezain plaxentak

– *Nor zen han? Sorginik ez haatik! Bainan hiru andere bilogorri, izarrak bezain plaxentak... Zubirat buruz zoatzin, taka taka beren aztalekin.* (Etxarren-Lohigorri, 1993: 47)

## 63. Pobre

## Zorria bezain pobrea

Hau erdaraz, zenbait tokitan segurik, *más pobre que rata de iglesia* erraten da.  
– *Emazteki horri senarra hil zitzaion eta orain zorria bezain pobrea da.* (Kamino & Salaberri, 2007: 199)

## 64. Polit

## Izarra bezain polita

– *Izarra bezain pollita [izarra bezin pullita].* (Duhau, 2003: 213)

## 65. Prestu

## a) Aingeru bat bezain prestu, bi aingeru bezain prestu

– *Haren belhauneri xutik egoki, Frantxa eta Xaneta Phesta-Berrietako bi aingeru bezen prestu zagozin, beren Piarresi aho-xilora beha eta beha. Ganix eta Gantxume, burdinazko kaska eskuan harturik, haren aztatzen ari ziren [...].* (Barbier, 1996: 99)

– *Bulta on bat bere ixter ubelduen ferekatzen arizanik, plaf, plaf lohian egiten zuela, aingeru bat bezen prestu bazoan orai alemana.* (Barbier, 1996: 134)

Cf. Jose Azpirotzen ondoko hau (1997: 24): «*Egileorko Joxek esan zion mesede uzteko pakean; berak konponduko zirala eta Maritxuk ezuala aingeru batek hainbat kulpa*».

## b) Bi aingeru bezain prestu eta xitun (‘burumakur’ edo)

– *Berant arte, bezperan, ihizi ederra eginik, ene hilabetheko bizarra nerekin nian beraz, eta han nindioian, bi aingeru bezen prestu eta xitun.* (Barbier, 1926: 133)

## 66. Segur

## Bi ordulariren orratzak bezain zuzenak eta segurrak

– *Bazkal tenorea ez ginezakeen ezagutu faltan hutsegin Haitzalden. Lehenik tripako zorriak zerbait erranik. Eta baginituen beste bi seinale, ordulariaren bi*

*orratzak bezain xuxenak eta segurak: hek biak ziren Munoa eta Oilarandoi, Baigorritik Garazirako bi tontorrek.* (Larre, 2001: 44)

#### 67. Tinki ‘estu’

##### Sardinak bezain tinki

Honen iruditsua da gaztelaniako (*estar*) *como sardinas en lata*.

– *Zurezko etxola haietan gizonak xardinak bezain tinke sartu zituzten. Gizonak uliak bezala hiltzen ziren, leku hartan.* (Bidegain, 2002: 11)

#### 68. Triste

##### Txori arlotua (‘galdua’) bezain triste

– *Bainan hola gelditzen baniz, bakar-bakarra, umezurtz bat bezala nitake, nehoven laguntza mikorik gabe, xori arlotua bezain trixte.* (Lafitte, 1982: 95)

Honen iruditsua da gaztelaniazko *más triste que la noche*.

#### 69. Tzar ‘gaiztoa’

Gaztelaniaz *ser peor que un dolor de muelas, ser más malo que arrancado, ser más malo que la quina* eta beste ibiltzen dira norbaiten gaiztakeria nabarmentzeko.

##### a) Lipua (‘armiarma’) bezain tzarra

– *Haurrean izan genuen errient hura lipua bezain tzarra zen, madarika-tua!* (Luzaide)

Cf. Dirassarren hau:

– *Heletarra holaxe mintzatu zitzaitan: “Ez zakela deus deus eman mutiko txar horri. Lipua gaixtoa duk eta ohoinal! Atrebitua! [...]”.* (Dirassar, 1995: 98)

##### b) Zerria bezain tzarra

– *Gilenen aita gizon hunáuk, gaizo Ferranjo, baina Gehaxina zaharra bezain faltsiauk! Zaiztian, hi zinez gaztia hiz ba besteñez! Gilen zerria bezain tzarrauk!* (Etxamendi, 1988: 29)

#### 70. Ugari

##### Mahatsa bezain ugaria

– *Mahats ondo batek, hainitz mulko ematen dituen bezala, zure ondorioa izan dadiela mahatsa bezain ugaria.* (Larzábal, 1992: 394)

#### 71. Umil

##### a) Haurtxo bat bezain umila

– *Simonek indarra bazuan saltzeko ere. Segan eta aizkoran ere ederki egiten zuan. Eta indar asko zuan mutil bat izateko, haurtxo bat bezin umila zan.* (Salaberria, 1994: 77)

##### b) Ttette (‘txakurra’, haur hizkeran) bezain umil

– *Otso zakur beltz eta horia abiatu zen, buztana gora, nor naiz ni aire batekin. Bide erditan gelditu zen, usnatzen hasi bere mutur luzearekin, apur bat*

*zalantzan egon eta gibelerat etorri, ttette bezain umil, buztana apal. Xanpaka ari zen gaizoa...* (Etxarren-Lohigorri, 1993: 16)

## 72. Usu

### **Eulia hilikira bezain usu**

– *Eskualdunik gabe, ez ditake izan Eskual-Herririk: alta eskualduna ari zaiku bakantzen. Ezin biziak kasatzen du sor-lekutik, arrotza sartzen zaikularik ulia hilikirat bezain usu!* (Lafitte, 2002: 369)

## 73. Xitun ('burumakur' edo)

Ikus *prestu* sarrera.

### **Bi aingeru bezain prestu eta xitun**

– *Berant arte, bezperan, ihizi ederra eginik, ene hilabetheko bizarra nerekin nian beraz, eta han nindioian, bi aingeru bezen prestu eta xitun.* (Barbier, 1926: 133)

## 74. Zail

### **Azeriak bezain zail eta zalu**

– *Bozetako egunak hurbiltzearekin, azeriak bezen zail eta zalu, bainan bildots batzu bezen ezti dabiltzala ikusiko ditutzue. Egundainokoa dute.* (HUA, 2004: 162)

## 75. Zalu

Honek adiera bat baino gehiago izan ditzake, gaztelaniaz 'ágil' erraten duguna lehenik, 'malgua' gero, eta 'azkar, fite, agudo' hirugarrenik. Ondoan heldu direnetan lehen erranahia du hitzak aurreneko hiru alderaketetan, 'malgua' zumearekikoan eta 'azkar, fite' tximistarekikoan. Ikus **agudo**, **azkar** eta **fite**.

### a) Azeriak bezain zail eta zalu

– *Bozetako egunak hurbiltzearekin, azeriak bezen zail eta zalu, bainan bildots batzu bezen ezti dabiltzala ikusiko ditutzue. Egundainokoa dute.* (HUA, 2004: 162)

### a) Katua bezain zalu

– *Eta, zurubi luzeeri gora bazoan Dabit, gatusa bezen zalu, haitzondoa inharrosten ere ez zuela. Haren ondotik igan zen gero Piarres, bainan puska pisuago, gain hartara jadanik heldua, hirriz eman zitzaion Dabit.* (Barbier, 1926: 129)

– *Ene xedea laster hartu eta obratu nuen. Gatu bat bezain zalu, lebio hartarik kanporat jauziz joan nintzan eta tira-ahala norapeit aldaratu.* (Larzabal, 1996: 67-68)

### b) Saguak bezain zalu

– *Kantua bururatu dutenean, oihu egiten dute berriz: «Sar laster zuen zilo-atarat!». Saguak bezen zalhu, Frantsesak zoin bere tokietan kokatu dire. Ordu*

*berean tiroak pirrindan iragan dire Frantsesen gainez gain.* (Hiriart-Urruti, 1992: 114)

c) **Tximista bezain zalu**

– *Nindagon, ene gizona ez ote zen ernatuko, bazterxago joaten edo zerbeit. Krik-krak, azken itzulia ximixta bezen zalu bere zintari emanik, eta poneta kendurik urrats bat eta erdiz jaun azpezpikuaren oinetan zen, belaun batez lurriari, bi eskuz eraztunari lot eta pot.* (HUA, 2004: 281)

– *Arraintzan zabilan noiztenka, ur hegiz ur hegi amuarekin, bainan ardurara etxez etxe bai bizikletan, bai oinez ximixta bezain zalu. Ele guti, eta hek onak.* (J. Etxepare medikua, 1988: 174)

d) **Zume batzuk bezain zalu**

– *Zangoak ez jakin non finka, emazteki batzu bezala nardaturik artzeko orde, nahiago zuten, erbiekin zartaka, oinak arin arin altxatuz, hatsak eta oro joan arte, tokiaren gainean, zume batzu bezen zalu itzulikan ari.* (Barbier, 1926: 219)

## 76. Zelai edo ordoki

**Sosa bezain zelai edo ordoki**

– *Ez baitzuen nehork sekulan ikusi Bastida bixkarrean Antxordokiko eta Intzabiko etxe-ondoko alor hek bezalako zabalgunen legun eta joririk: sosa bezain zelai, edo ordoki, gure aitak zion bezala.* (Larre, 2001: 65-66)

## 77. Zikin

**Urdea bezain zikin**

– *Bainan ez duzu ikhusiko xerririk ongarripean etzanik. Bere xola ere garbia idukiko du, idekia bada behar-orduan. Garbiki atxikitzen den xerria bertzeak baino lasterrago gizentzen da. Txinan harritzeko garbitasunean hazten dute, eta halaxet ere hango urdekiak gureak baino itxura eta ahoko gozo hobeak ditu. / SEMEAK – Zertako erraiten da, bada, urdea bezain zikhina?* (Duvoisin, 1986 [1958]: 151-152)

## 78. Zintzo

**Apostolu bat bezain zintzo**

– *Zer dituzu, berriz ere, solas ments horiek? Ez zira ahalge ere. Hor ibiltzen zira apostolu bat bezain zintzo, iduri onbor hil bat.* (Larzabal, 1992: 336)

Hau Uztapidek (1975: 23) darabilen *herriko bikarioa baino ere zintzoago (egon)* formaren biziki iruditsua da; aldea, ikus daitekeen bezala, batean bezain eta bestean baino...-ago agertzea da.

## 79. Zorrotz

**Bizar-labana bezain zorrotza**

– *Hainbertzenarekin, kanoi-ziliporta alimale bat, bizar-naala bezen xorrotza, bi urhatsetan sartzen zaio pezoinarene erdi-erdian...* (Barbier, 1996: 66)

## 80. Zuri

## a) Elurra bezain zuri(a)(k)

Agirre Asteasukoak (1978 [1850]: 104) *elurra bezala txurituak* darabil: «*Elurra bezala txurituak geldituko dira zuen bekatuak, grana bezeñ gorriak balira ere, esaten digu Isaias Profetak*».

– *Barneko gorri batek, bere botoin urhestatuez zerratua, bainan idekia gainean, uzten zuen papoan agertzera athorra, xeheki lisatua, eta elhurra bezain xuria zena.* (Elizanburu, 1993: 14)

– *Philipe, alde-aldean, odol-husten ari da ixterretik, bomba ziliporta batek ixter hura xirxikaturik. Elhurra bezain xuri bera egina, ezpainak ubelduak, intzireka huna muthiko maitea; eta, hitz bat gabe, begi iraungi batzuekin behatzen diote bere bethiko laguneri.* (Barbier, 1996: 78)

– *Anartean askatu beharko ditutzu sei biligarroak... Ezen zuk idatzi duzun agerian (sic) elurra bezain xuri daude...* (Etxarren-Lohigorri, 1993: 109)

– *Zazpi landare berri, graziaz beteak, bakotxak zazpi xilintxa ttipi ekartzen zituela. Zazpi xilintxa primaderako haize eztian dantzan zabiltzanak, hedatzen zutela parabisuko baratzetik bakarrrik heda ditaiken usain ona. Balusa bezain eztiak. Argi-hasteko lehen ufa bezain arinak, mendietan dirdiratzen duen elurra bezain xuriak, zazpi ezkilak bezain pollitak, zazpi serorak bezain garbiak, lehen ezkongai-loreak lurretik ziren sortuak.* (Minaberri, 1998: 155)

## b) Elurra bezain zuri eta garbi

– *Bainan errana da ogi bihi gaineko xoria enoatzen dela. Krulik ere enoatu zen. Sobera arrain, sobera ulitxa, sobera... sobera... Elurra bezain xuri eta garbi igebelarra beti han zagon ur gainean. Ez ote zitzaion Kruliki keinuka ari? Haugi, haugi ziola haren bihotzak?* (Minaberri, 1988: 133)

## c) Esnea bezain zuria

Gaztelaniazko *más blanco que la leche*-ren baliokidea da, bistan denez.

– *Esakeran tolesgabea, ibilkeran adjutua, begirunean samurra; esnea bezin zuria, olio bezin leuna, eztia bezin gozoa; garbia, txukuna liraña, burutsua, ona ta ederra beste on ta ederrik iñon bazan, aingeru bat zirudian ta aingerutzat zeukaten, etxeokak, ezagunak eta erritarrak.* (Tx. Agirre, 1966: 121)

## d) Gazta bezain zuri

– *Eta Piarres, zozotua, gasna bezin zuriko begi batzuekin, bi eskuak aintzin halako orro itsusi bat zintzurretik zoakola, bi plegutan eman zen, leiho ez-kinean.* (Barbier, 1987: 94)

## e) Piltzarra bezain zuri

Ez dakigu, kasu honetan, zertan oinarritzen den alderaketa, piltzarra ‘zar-paila’, ‘trapu zaharra’ baita, ez zuri-zuria. Menturaz kolorea galtzeari egiten dio erreferentzia.

– *Soldado aitzindariak eta oro harriturik, piltzarra bezain zuri mendiarri behera, eta zalu, igorri dituzte, jin bidez gibelerat, deus egin gabe.* (HUA, 2004: 441)

## 81. Zut

a) **Akuilua bezain zut**

– *Jesus! Hau da berria! Atzo akulua bezain xut pasatu baita karrikan, zer gertatu zaio bada?* (Lafitte, 1982: 99)

b) **Apeza aldarean bezain zut, jaun erretorea aldare aitzinean bezain zut**

– *Eta burua alto, papoa aintzin, bipher gorri soka bat sudurraz joiten zuela, jaun erretora aldare aitzinean bezain xut, sartu zen Alkate-Jauna, bere sukaldean...* (Barbier, 1987: 85)

– *Matxin eta Xabatene, apheza aldarean bezen xut, ezpal heien sartzen ari ziren, begiak argi, eskuak zalhu.* (Barbier, 1987: 230)

c) **Gerrena irentsi balu bezain zut**

– *Eta, Migel alkatea, emazteari bi besarka-aldi emanik, etxeko gerrena irentsi balu bezain xut, karrikari beheiti, herriko etxeari buruz joan zen agudo, berantegi helduko zelako beldurrarekin.* (Barbier, 1987: 86)

d) **Haga bezain zut**

– *Edale gaitzak, izigarriak badire, santa sekulan eroriko ez zaitzunak, ez eta behaztopaturik ere. Haga bezen zut beti. Nekezago kraskatzen ditu edanak.* (HUA, 2004: 303)

e) **Hesola bezain zut**

– *Eta paso bat eman zion mahainari ukamiloz... Brigadak agurtu zuen kapitaina, hesola bezain xut eta aztalak elgarri joz. Eta atera zen prisaka...* (Etxarren-Lohigorri, 1993: 109)

f) **Ihi bat bezain zut**

– *Gizon propia iduritu bazitzaitan Piarres bidean kausitu nuenean, zer gizon ederra zen, bere maripulis oihal beltzezkoa soinean eta ere makila letoindun gorria eskuan, Askaingo plazaren erdian barna, ihi bat bezain xut zohalarik!... hogoi urteko mutil gazte batek bezain aise saltzatzen (sic) zituen burua nola zangoak [...].* (Elizanburu, 1982: 22)

g) **Pazote bat bezain zut** ('zutoina bezain zut')

– *Jaun bikarioa eskearen egiten ari zen, pazote bat bezen xut, hirri bat ordainduz sos bat emaiten zionari, milesker zorrotz bat aldiz, bi eskuetan kokotza sarturik, bizkarrez egoiten zitzaionari. Ez zen gero jostetarik harekin!...* (Barbier, 1926: 204)

## 82. Zuzen

Honelakoak gaztelaniaz *andar más derecho que una vela, ser más recto que una vela...* erraten dira.

a) **Ia** (*i* letra) **bezain zuzen** (ikus **ihi bat bezain zut**)

– *... kopeta bat azkenik, sudur xuxen pullit baten gainean, eskualdun errabot bat bezala, kapeluaren azpian ederki neurrian zabaltzen zitzaiona. Horra, ia bezen xuxen, nolakoa heldu zen Piarres, Phesta-Berri egun hartan.* (Barbier, 1926: 170)



– *Nahas-mahas, deusik ez oraino hala-hala, laster ohilduak alabainan; eta beren buruzagiaren ondotik lerrokatuak, ia bezen xuxen eta oso-oso horiek joanen itsasoz haindirat!...* (Barbier, 1996: 148)

– *Arren hortarat doa, ia bezain xuxen, eta bide laburrez, “impôt progressif” hori.* (HUA, 2004: 237)

#### b) Iltzea bezain zuzen

– *Baionako bi erreximenduko gizonetarik iragan ziren lerroka haren aitzi-nean burua xut, zangoak arin, itzia bezain xuxen, berrehun eta berregoi-ta berderatzigarreneko musikak airean zaukalarik plaza guzia.* (Saint-Pierre, 1998: 144)

– *Eta orena? Huna, hor oren xuxena: iguzkia Munoaren gain gaineratzea-rekin eguerdi berri, 12ak; eta Oilarandoi hartzen zuelarik bere pean, itzea bezain xuxen, orduan oren bata, eguerdi zahar.* (Larre, 2001: 44)

– *Hura beti itzea bezain xuxen [hua bethi itzia bezin xuxen].* (Duhau, 2003: 239)

– *Jaun kaseta egilia, itzia bezain zuzen heldu zauku orai artio zure kaseta eta guk bezala soldado lagunak irakurtzen dute kasik buruan buru.* (X. Arbelbide, 2003: 49)

#### c) Orratz bat bezain zuzen, ordulariaren bi orratzak bezain zuzen eta segurak

– *Buztanetik arras hurbil dute hirugarrena, gyroscope deitua. Hunen mediodioz badoa arraina beti aitzina, orratz bat bezain xuxen, eskuin edo ezker batiere zeihartu gabe.* (J. Etxepare medikua, 1988: 312)

– *Bazkal tenorea ez ginezakeen ezagutu faltan hutsegina Haitzalden. Lehenik tripako zorriak zerbait erranik. Eta baginituen beste bi seinale, ordulariaren bi orratzak bezain xuxenak eta segurak: hek biak ziren Munoa eta Oilarandoi, Baigorritik Garazirako bi tontorrak.* (Larre, 2001: 44)

## BIBLIOGRAFIA

- ADÉMA, G., 1887, *Escualdun Pelegrinaren Bidaltzailea*, Baiona.
- AGIRRE ASTEASUKOA J. B., 1978 (1850), *Eracusaldia*, 2. alea, Hordago, Donostia. 1850eko argitaraldia Tolosan egin zen.
- AGIRRE, Tx., 1966, *Garoa*, Arantzazuko frantziskotarren argitaldaria, Oñati.
- ARBELBIDE, X., 2003, *Euskaldunak Aljerian 1954-1962*, Elkarlanean, Donostia.
- AZPIROTZ, J., 1997, *Alkarrentzat jaiok*, Auspoa 250, Oiartzun.
- BARBIER, J., 1926, *Piarres*, Baiona.
- , 1987, *Supazter xokoan*, E. Valenciak paratu argitalpena, Klasikoak 16, Euskal Editoreen Elkartea & Eusko Jaurlaritzza, Donostia.
- , 1996, *Piarres II*, Ane Loidik paratu argitalpena, Klasikoak 78, Euskal Editoreen Elkartea & Eusko Jaurlaritzza, Donostia.
- DIRASSAR, J., 1995, *Hegiko bordatik*, Elkar, Donostia.
- DUHAU, H., 2003, *Hasian Hasi. Beskoitzeko Euskara (Beskoitzeko Heskua)*, Euskal Kultur Erakundea & Beskoitze, Donibane Lohizune.
- DUVOISIN, J. P., 1986 (1858), *Laborantzako liburua*, Euskal Editoreen Elkartea, Zarautz.
- ELIZANBURU, J. B., 1982, *Piarres Adame*, Elkar, Lizarra.
- ELIZANBURU, M., 1993, *Lehenagoko eskualdunak zer ziren*, Klasikoak 58, Euskal Editoreen Elkartea & Eusko Jaurlaritzza, Donostia.
- ETXAMENDI, E., 1988, *Gilentegiko Gilen*, Gipuzkoako Kutxa, Donostia.
- ETXARREN-LOHIGORRI, J. B., 1993, *Zubi madarikatua*, Pamiela, Iruñea.

- ETXEBARNE, E., 1989, *Erramun Harginaren Oroitzapenak*, Auspoa Liburutegia 198, Donostia.
- ETXEPARE, J., 1988, *Jean Etchepare Mirikuaren Idazlanak. III Kazetaritza (A) (1903-1915)*, Piarres Xarrittonek prestatu argitalpena, Elkar, Donostia.
- ETXEPARE LANDERRETXE, J., 1991, *Mendekoste gereziak*, Inazio Mujikak paratu argitalpena, Erein, Donostia.
- HIRIART-URRUTI ALTHEGI, J. (HUA), 2004, *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*, x. Altzibarrek prestatu edizioa, Labayru Ikastegia, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, Bilbo.
- HIRIART-URRUTI DARRAIDOU, J. (HUD), 1992, *Aitaren etxerat*, Donostia.
- IRAZUSTA, J. J., 1994, *Nork bere bidea*, Auspoa, Oiartzun.
- KAMINO, P. & SALABERRI, P., 2007, *Luzaideko euskararen hiztegia*, Nafarroako Gobernu & Euskaltzaindia, Mendaur III, Iruñea.
- LAFITTE, P., 1982, *Murtuts eta bertze...*, Elkar, Baiona – Donostia.
- , 2002, *Kazetari-lan hautatuak*, Elkar, Donostia.
- Larre, E., 2001, *Ene artzain-etxolak*, Auspoa – Sendoa 273, Oiartzun.
- Larzabal, P., 1991, *Piarres Larzabalen Idazlanak. I. Etxahun eta...*, P. Xarrittonek paratua, Elkar, Donostia.
- , 1992, *Piarres Larzabalen Idazlanak. III. Orreaga...*, P. Xarrittonek paratua, Elkar, Donostia.
- , 1992b, *Piarres Larzabalen Idazlanak. IV. Matalas...*, P. Xarrittonek paratua, Elkar, Donostia.
- , 1996, *Piarres Larzabalen Idazlanak. V. Ipuin eta ixtorio*, P. Xarrittonek paratua, Elkar, Donostia.
- , 1998, *Piarres Larzabalen Idazlanak. VII. Oroitzapenak*, P. Xarrittonek paratua, Elkar, Donostia.
- LASARTE, M., 1994, *Lazkao-Txiki gogoan*, Auspoa, Oiartzun.
- , 1997, *Kantuaren ordaiñez*, Auspoa 248, Oiartzun.
- LÉON, L., 1993, *Alegia deus ez!* Elkar, Donostia – Baiona.
- MINABERRI, M., 1998, *Marijane konta zan*, Elkarlanean, Donostia.
- MUJIK, T., 1996, *Errekaldeko intxaurraren itzala*, Auspoa 235, Oiartzun.
- NARBAITZ, P. «P. Arradoy», 1999, *Kattalinen gogoetak*, Elkarlanean, Donostian.
- OSA, E., 1990, *Euskararen hitzordena*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- PERURENA, P., 1994, *Marasmus femininus*, Elkar, Donostia.
- , 2001, *Trapuan pupua*, Erein, Donostia.
- SAINT-PIERRE, P. «Anxuberro», 1998, *14eko Gerla Handia*, Piarres Xarrittonek paratu argitalpena, Klasikoak, 85, Euskal Editoreen Elkarte & Eusko Jaurlaritza, Donostia.
- SALABERRIA, S., 1994, *Neronek tirako nizkin*, Auspoa, Oiartzun.
- , 1997, *Sagardotegiak*, Auspoa 247, Oiartzun.
- UZTAPIDE, 1975, *Lengo egunak gogoan*, Auspoa, Tolosa.
- XALBADOR (Ferrando Aire), 1976, *Odolaren mintzoa*, Auspoa Liburutegia, Tolosa.
- ZENDOIA, N., 1998, *Beranduko birigarroa*, Auspoa 254, Oiartzun.

## LABURPENA

### *Alderaketa adierazkorak: Bezain-en erabilera euskaraz*

Lan honetan “alderaketa adierazkor” deitu ditugun erkaketak biltzen ditugu, gehien-gehienak literaturatik hartuak, nahiz badiren belarriz jaso ditugun bakan zenbait ere. Jakina den bezala, gure inguruko hizkuntzetan (gaztelanian, frantsesean eta ingelesean, besteak beste) honelakoak ohikoak dira, hiztunak ia ohartu gabe ibiltzen ditu, hizkuntza horiek duten gizarte presentzia handiagatik. Euskaraz, berriz, franko ardurakoak dira literaturan, baina ez hainbeste eguneroko solasean –aldeak alde eta lekuak leku–, segurrenik ere gure mintzairak gizartean duen presentzia ttipiagatik. Bestalde, desberdintasun zerbait hauteman dugu Iparraldeko eta Hegoaldeko usadioen artean, mendiez goitiko alderdian usuenik *bezain* kausitzen baitugu eta mendiez honaindian, berriz, *baino...-ago*, nahiz, jakina, bi eremuetan biak azaltzen diren. Alegia, aldatzen dena proportzioa da, erabilera maiztasuna.

**Gako hitzak:** alderaketa adierazkorra, *bezain*.

## RESUMEN

*Uso de bezain en euskera*

En este artículo nos ocupamos de las que hemos llamado “comparaciones expresivas”. La mayor parte de ellas han sido extraídas de la literatura, pero hay también algunos ejemplos recogidos del euskera oral. Como es sabido, en las lenguas de nuestro entorno (en castellano, francés, inglés...) las comparaciones de este tipo son numerosas, los hablantes las emplean casi sin darse cuenta, debido, seguramente, a la fuerte presencia social de dichas lenguas. En el caso del euskera, en cambio, a pesar de ser bastante frecuentes en las obras literarias, lo son mucho menos –salvando las diferencias– en la lengua hablada, probablemente por la escasa presencia que tiene en la sociedad. Por otra parte, queremos señalar la diferencia observada entre la Vasconia continental y la peninsular, ya que mientras que en la primera la forma más habitual es la que emplea *bezain*, en la segunda lo más frecuente es la comparación mediante *baino...-ago*. Con todo, debemos aclarar que tanto la una como la otra se emplean en las dos vertientes del Pirineo; lo que cambia es la proporción, la frecuencia de uso de una y otra forma.

**Palabras clave:** comparación expresiva, *bezain*.

## RÉSUMÉ

*Comparaisons expressives Usage de bezain en basque*

Nous allons aborder dans cet article ce que nous avons appelé “les comparaisons expressives”. La plupart d’entre elles ont été issues de la littérature, mais il y a aussi quelques exemples qui viennent du basque oral. Comme tout le monde sait, dans les langues de notre entourage (l’espagnol, le français, l’anglais...) les comparaisons de ce type sont nombreuses; les personnes les utilisent presque sans s’en rendre compte, à cause, sans doute, de l’importance sociale de ces langues. Pour ce qui est du basque, par contre, bien qu’elles soient fréquentes dans la littérature, elles le sont bien moins –en respectant les différences– dans la langue parlée, sûrement parce qu’elle occupe peu de place dans la société. D’autre part, nous voulons souligner la différence observée entre le Pays-Basque continental et le péninsulaire, en effet, tandis que dans la première la forme la plus fréquente est celle qui utilise le *bezain*, dans la deuxième la plus fréquente est la comparaison au moyen de *baino...-ago*. Cependant, nous devons souligner qu’aussi bien l’une que l’autre sont utilisées des deux côtés des Pyrénées; ce qui change c’est la proportion, la fréquence d’utilisation des deux formes.

**Mots clé:** comparaison expressive, *bezain*

## ABSTRACT

*Expressive comparisons. Use of bezain in Basque*

In this article, we deal with what we have called “expressive comparisons”. Most of these have been taken from literature, although some examples have been collected from spoken Basque. As is known, in the languages in our environment (Castilian, French, English, etc.), comparisons of this type are numerous, speakers using them almost without realising, due, without doubt, to the strong social presence of these languages. In the case of Basque, however, despite being quite frequent in literary works, they are far less so –bar exceptions– in the spoken language, probably due to its scant presence in society. We would also like to highlight the difference observed between continental and peninsular Vasconia: while in the former, the most habitual form is the one employing *bezain*, in the second, the most frequent is the comparison which uses *baino...-ago*. We would like to point out, however, that both

are used on both sides of the Pyrenees, the difference being proportion, the frequency of use of one or the other form.

**Key words:** expressive comparisons, *bezain*.